

16. NAO - 2013ko urtarrilaren 24a

31. ALDIZKARIA - 2025eko otsailaren 14a (tarifaren aldaketa)

32. ORDENANTZA FISKALA, INGURUMEN-BABESAREN ERAGINPEAN DAUDEN JARDUERENDAKO ETA INGURUMEN-BABESAREN ERAGINPEAN EZ DAUDEN JARDUERENDAKO BAIMENAK EMATEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA (LEHEN ALDIZ ERABILTZEKO EDO ERABILERA ALDATZEKO LIZENTZIA), BAI ETA EGIAZTATZE JARDUERAK EGITEA ERE, ALDEZ AURREKO BAIMENA EDO KONTROLA BEHAR EZ DUTEN JARDUEREN KASUAN

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraikiz.

ZERGAPEKO EGINTZA

2. artikulua. Zergapeko egintza zerbitzu tekniko eta administratiboak egitea da, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen arabera jarduera sailkatuetarako udal lizentzia behar duten jarduerak eta instalazioak, bai eta udal lizentziarik behar ez baina lehen aldiz erabiltzeko edo erabilera aldatzeko Udalaren hirigintzako lizentzia behar duten jarduerak ezarri, ustiatu, lekuz aldatu, funtsez aldatu, berriz ireki eta abian jartzeko, bai eta legeria sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egitea ere, aldez aurreko baimena edo kontrola behar ez duten jardueren kasuan. Zehazki:

-Jarduera lizentzia.

-Irekitzeko lizentzia.

-Irekitzeko lizentziaren aldaketa.

-Jarduera sailkatuaren titulartasuna aldatzea.

-Instalazio eta lokalak berriz irekitzeko baimena.

-Jarduera sailkatuetarako udal lizentziarik behar ez duten jardueren lehen aldiz erabiltzeko edo erabilera aldatzeko lizentzia.

-Jarduera sailkatuetarako udal lizentziarik behar ez duten jardueren lehen aldiz erabiltzeko lizentzia eskuz aldatzea.

-Legeria sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, aldez aurreko baimena edo kontrola behar ez duten jardueren kasuan, titulartasuna aldatzen denean.

-Legeria sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, aldez aurreko baimena edo kontrola behar ez duten jardueren kasuan, jardueren potentzia mekanikoa 10 kW baino txikiagoa

bada aire girotuan, girotzean eta aireberritzean, edo 5 kW baino txikiagoa bestelako aparatuetan edo makinetan.

-Legeria sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, aldez aurreko baimena edo kontrola behar ez duten jardueren kasuan, jardueren potentzia mekanikoa 10 kW baino handiagoa bada aire girotuan, girotzean eta aireberritzean, edo 5 kW baino handiagoa bestelako aparatuetan edo makinetan.

ORDAINDU BEHARRA

3. artikulua. Lizentzia eskatzen denean edo zergapeko egintza osatzen duen udal jarduera egiten denean sorraraziko da tasa.

4. artikulua. Zergapeko egintza osatzen duen udal jarduera egiten bada lizentziarik eskatu edo eskuratu gabe (eskatu den kasuan), tasa sortuko da establezimenduak lizentzia jasotzeko behar diren baldintzak biltzen dituen edo ez zehaztuko duen udal jarduera benetan abiarazten denean; horrez gain prozedura administratiboa abiaraziko da jarduera baimengarria den edo, kontrara, baimengarria ez bada jarduera gelditzea ebazteko.

SUBJEKTU PASIBOA

5. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasak ordaindu behar dituzte pertsona fisiko eta juridikoek, baita, nortasun juridikorik ez izan arren, batasun ekonomikoa edo aparteko ondarea osatzen duten entitateek ere, baldin haien izenean lizentzia eman, aldatu edo berraztertzen edo eskualdatzen bada.

TARIFAK

6. artikulua. Ordenantza honen eranskinean jaso dira aplikatuko diren tarifak.

KUDEAKETAKO ARAUAK

7. artikulua. 2. artikuluan zehaztutako lizentziak erdiesteko interesa duten pertsonak behar den eskabidea aurkeztuko dute Udaletxean, lokalean egin beharreko jarduera edo jarduerak eta horren kokapena zehazten dituztela, aplikatzekoa den legedian eta dagozkion udal ordenantzetan eskatutako dokumentazioarekin batera.

8. artikulua. Udalak dagokion lizentziaren baimena ematen ez duen bitartean, interesdunek zilegi izanen dute espresuki atzera egitea eta kasu horretan tasa izanen da lizentzia eman balitz ordaindu beharko zatekeenaren %50. Lizentzia ukatzen bada, tasa portzentaje berean murriztuko da.

9. artikulua. Lizentzia iraungiz gero, jardueran aritu nahi duten interesdunek lizentzia berria eskatu beharko dute, eta dagokion tasa ordaindu.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. artikulua. Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta harekin bat heldu diren arauetan xedatutakoari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.-Ordenantza honetan jasotzen ez den orotan, toki entitate honek onetsitako ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatua aplikatuko da.

Bigarrena.-Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko, haren testu osoa behin betiko onetsita Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.-Ordenantza honek indarrik gabe uzten ditu "Establezimenduak ireki eta eskualdatzeko lizentziak emateko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala" eta "Ingurumenaren babesaren arloan baimenak emateko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala".

2025EKO TARIFEN ERANSKINA

TARIFAK 2025

(euroak)

I. epigrafea.–Jarduerarako lizentzia eta jarduerarako lizentziaren berrikuspena.

–Establezimendu edo instalazioak, 75 m ² erabilgarriraino	660,00
–75 m ² erabilgarritik gora, 100 m ² -ra bitarte	820,00
–100 m ² erabilgarritik gora, 250 m ² -ra bitarte	1100,00
–250 m ² erabilgarritik gora, 500 m ² -ra bitarte	1320,00
–500 m ² erabilgarritik gora, 1.000 m ² -ra bitarte	1640,00
–1.000 m ² erabilgarritik gora	2.080,00

II. epigrafea.–Irekitzeko lizentzia eta irekitzeko lizentziaren aldaketa, eta, jarduera sailkatuetarako udal lizentziarik behar ez duten jardueretan, lehen aldiz erabiltzeko lizentziak edo erabilera aldatzeko lizentziak.

–Establezimendu edo instalazioak, 75 m ² erabilgarriraino	605,00
–75 m ² erabilgarritik gora, 100 m ² -ra bitarte	715,00
–100 m ² erabilgarritik gora, 250 m ² -ra bitarte	820,00
–250 m ² erabilgarritik gora, 500 m ² -ra bitarte	930,00
–500 m ² erabilgarritik gora, 1.000 m ² -ra bitarte	1.095,00
–1.000 m ² erabilgarritik gora	1.315,00

III. epigrafea.–Jarduera sailkatuaren titulartasuna aldatzea, eta, jarduera sailkatuetarako udal lizentziarik behar ez duten jardueretan, lehen aldiz erabiltzeko lizentzien eskualdaketa.

–Establezimendu edo instalazioak, 75 m ² erabilgarriraino	330,00
–75 m ² erabilgarritik gora, 100 m ² -ra bitarte	410,00
–100 m ² erabilgarritik gora, 250 m ² -ra bitarte	550,00
–250 m ² erabilgarritik gora, 500 m ² -ra bitarte	660,00
–500 m ² erabilgarritik gora, 1.000 m ² -ra bitarte	820,00
–1.000 m ² erabilgarritik gora	1.040,00

Tasa ordaintzetik salbuetsirik daude titulartasun aldaketak eta jarduera sailkatuaren udal lizentziari lotu gabeko jarduerak lehen aldiz erabiltzeko lizentzien eskualdaketak, lehen urtean eskatzen badira jarduera sailkatuaren lizentzia ematen denetik edo jarduera sailkatuaren udal lizentziari lotu gabeko jarduerak lehen aldiz erabiltzeko lizentzia ematen denetik.

Halakoetan, udal teknikariaren ikustaldiagatik baizik ez da tasa ordainduko, 7. ordenantza fiskalak ezartzen duen bezala.

IV. epigrafea.–Instalazioak eta lokalak berriz irekitzeko baimena, egiaztatu behar izaten diren obrak egin ondotik.

–Ingurumen babesaren eraginpean dauden jarduerak egiten diren lokalak	520,00
–Ingurumen babesaren eraginpean ez dauden jarduerak egiten diren lokalak	520,00

V. epigrafea.–Lizentzia berriz definitzea.

–Lizentzia berriz definitzen den bakoitzeko, jardueraren izena eta funtzionamendu- arabidea egokitzeko, ostatu berezi edo ikuskizunetarako kafetegi bilakatzeko	605,00
VI.–epigrafea.–Legeria sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, aldez aurreko baimena edo kontrola behar ez duten jardueren kasuan, jardueraren titulartasuna aldatzen denean.	
–Establezimendu edo instalazioak, 75 m ² erabilgarriraino	330,00
–Establezimendu edo instalazioak, 75 m ² -tik 150 m ² erabilgarriraino	410,00
–Establezimendu edo instalazioak, 150 m ² -tik 300 m ² erabilgarriraino	550,00
–Establezimendu edo instalazioak, 300 m ² erabilgarririk gora (euro/m ²)	2,45
VII. epigrafea.–Legedia sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, aldez aurreko baimena edo kontrola behar ez duten jardueren kasuan, 10 kW-tik beherako potentzia mekanikoa duten jarduerak irekitzen, irekiera aldatzen eta erabilera aldatzen denean aire girotuan, klimatizazioan eta aireztapenean, eta/edo 5 kW baino txikiagoko bestelako aparatu edo makinaren kasuan.	
–Establezimendu edo instalazioak, 75 m ² erabilgarriraino	605,00
–Establezimendu edo instalazioak, 75 m ² -tik 150 m ² erabilgarriraino	715,00
–Establezimendu edo instalazioak, 150 m ² -tik 300 m ² erabilgarriraino	820,00
–Establezimendu edo instalazioak, 300 m ² erabilgarririk gora (euro/m ²)	3,15
VIII. epigrafea.–Legedia sektorialean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, aldez aurreko baimena edo kontrola behar ez duten jardueren kasuan, 10 kW-tik gorako potentzia mekanikoa duten jarduerak irekitzen, irekiera aldatzen eta erabilera aldatzen denean aire girotuan, klimatizazioan eta aireztapenean, eta/edo 5 kW baino handiagoko bestelako aparatu edo makinaren kasuan.	
–Establezimendu edo instalazioak, 75 m ² erabilgarriraino	1260,00
–Establezimendu edo instalazioak, 75 m ² -tik 150 m ² erabilgarriraino	1530,00
–Establezimendu edo instalazioak, 150 m ² -tik 300 m ² erabilgarriraino	1.920,00
–Establezimendu edo instalazioak, 300 m ² erabilgarririk gora (euro/m ²)	7,70